

Ramon Unanue

Xabier Mikel
Errekondo

Herri guztiak dira ezberdinak. Ezaugarri propioak dituzte eta horrek, hain zuzen, egiten ditu berezi. Pertsonak ere ezberdinak gara guztiok, eta eskerrak. Guztiok berdina ginatekeen jendarterik irudikatzeko ariketarik ez dut egin nahi... plastikozkoak, klonak, Dolly ardiaren antzera. Tristea eta jasanezina.

Ez naiz beraz nire herria, Usurbil, beste herrien gainetik jartzeko mokokerien lokatzetan eroriko, baina ia lau urte hil zen eta izugarrizko zigilua utzi digun pertsona erraldoi bati aitortza egiteko beharra sentitzen dut une honetan. Bakoitzari berea. Ramon Unanue Matxain. 2013ko azaroan hil zen, eta geroztik zorretan sentitu naiz,

beste asko bezala. Nabarmena da utzi duen hutsunea. Ramon ikur bilakatu da 40 urteotan borondatez ehunka herritar artez entrenatzeagatik. Egun esaten dugun eskola integrala aplikatu zuen, artisau lana, eskulan kustomizatua txirrindulariekin, eskubaloian, futboleant, pilotan, kirol egokituan, giza-proban, atletismoan, eta abar. Medio gutxirekin ere aitzindaria zen, pentsa 70eko hamarkada amaieran jada Kalefit egiten zutela emakume helduekin; nire ama bera, egun 83 urte dituen.

Kirola, baina, helburu eta tresna izan ditu une berean. Uzta aparta, eliteko kirolari andana, olinpikoak, paralinpikoak, Estatu-ko txapeldunak, Europakoak... Baina, batez ere, pertsonak izan ditu jomuga. Dena

pack berean, lana, sufritzen jakitea, elkar-tasuna, irabaztea eta mentalitate heldua. Eta guztia maitasunez eta pasioz, berak bi-zi bezalaxe. Buztinezkoak bagina bezala, esku erraldoiekin maisuki moldatu dizki-gun baloreak. Biderkatuta herrira zabal-tzen ahalegintzen garena...

Gogoan dut Joxe Torregarai. Handia be-ra ere (GAUR8, 2017-01-07).

Biek margotu dituzte kolore biziz Usur-bilgo kaleak eta ziprztindu dute usurbil-darron izaera marka propioekin. Ez dira bakarrak. Biak ala biak ederki dira islatzen Arrastalu zein Zumetaren artelanetan ere.

Usurbildarra naiz eta harro nago.

Eta Ramon Unanue Matxain Usurbilgo ondare humanoa da. •

Nortasun agiria berritzen, sepia koloretan

Maidar Iantzi
Goienetxe

Uda sasoi honetan, Kontxako hondartzaz eta Biriaturko ordainlekuaz gain, bada bertze leku bat gainezka egon ohi dena: nortasun agiria berritzeko polizia etxeak. Horietako batean sartzea denboraren makinan bidaiatzea bezala da: sepia koloretan dago dena. Lehen orduan zoaz, txandarik gabe, bi egun eskasera hegazkina hartu behar duzulako larrituta. Hara, bi ilara daude, bat txanda dutenena eta bigarrena zu bezalako apuratuena. Gizon bat atera da. Denak bere gainera. Bakoitza bere larritasuna azaltzen. Badirudi jatorra tokatu dela eta baietz erran dizu, esperatzeko, eginen dizutela karneta. Paper batean idatzi du zure izena.

Sartu eta txoko batean jarri zara, ingurura begira. Mahai luze bat duzu aitzinean: parte bat pasaporteena da, bertzea nortasun agiriena, eta hirugarrena “atzeritarrena”. Eta azken horiek zakarrago tratatzen dituztela konturatu zara hasieratik. Komentario arrazistak aditzen dizkiozu zain dagoen jendearenean. Pelikuletan bezala, badira funtzionario ona eta txarra. Ona zerrendan sartu zaituena da; txarra, zerrenda hori kudeatzen ari dena. Ezin sine-tsizkoa da bere efikazia falta. Orduak badoaz eta ez dakizu bi lagun ere deitu dituen. Fundamentu gehiagoko kidea hurbildu zaio eta martxa pixka bat jarri du.

Urte batzuk badituen argazkia eta iraungitako nortasun agiria magalean dituzu.

Gizon bat hiriaren bertze puntan dagoen fotomatoira bidali dute erakutsitako argazkian aunitzez ile gehiago duela-eta iseka eginez. «Ni ez naiz sobera aldatu, ez?», galdetzen diozu zure buruari.

Amoragarria da nola begiratzen zaituzten goitik, gehiago balira bezala. Salto batean altxatu zara zure izena aditzean. Urduri jartzen zara poliziekin eta hatza jartzeko eskatu dizutenean izerditan zaudela ohartu zara. Posta elektronikoko helbidea galdetu dizutenean ere, nerbioekin, berri bat asmatu duzu. Total, ez duzu uste erabiliko dutenik. Ordaindu, eta buruhandi bat agertzen den txartela gorde duzu karteran, soilik behar-beharrezkoa denetan erakusteko. •